ihobe

Herri-baltzua Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

K:\SIC\Administracion\Contratos\word\3723.docx

**IHOBE, S.A. UDALSAREA 21EN IDAZKARITZA TEKNIKOAREN ETA ERRENTERIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, E-MUGI APLIKAZIO INFORMATIKOAREN LAGAPEN, ERABILERA ETA USTIAKETA PARTEKATUARI BURUZKOA**

Bilbo, 2018ko ekainaren 28a

**BILDURIK**

Alde batetik, Jesús Losada Besteiro jauna, IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren (IFZ: A-01024223) zuzendari nagusi gisa.

Eta, bestetik Julen Mendoza Pérez jauna, Errenteriako Udaleko alkate gisa.

**ADIERAZTEN DUTE**

1) Ihobe, S.A. Sozietate Publikoa, Udalsarea 21en (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) Idazkaritza Teknikoa denezeta EAEko Tokiko Jasangarritasunaren Behatokia denez, hemendik aurrera lagatzailea, e-mugi aplikazio informatikoaren ustiaketa-eskubideen jabe eta titular bakarra da.

2) Sarearen esparru arautzailean, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunaren aldeko Konpromisoa berritzeko Erabakian (2016ko apirilaren 27koa) —"Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea"—, tokiko administrazio sinatzaileen ardura gisa jasotzen dira Udalsarea 21en esparruko informazioa ematea eta intereseko esperientziak partekatzea.

3) Errenteriako Udalak, zeinari hemendik aurrera lagapen-hartzaile deituko baitzaio eta akordio horri atxikitzen baitzaio, aplikazio informatikoa bere erabilera partikularrerako erabiltzeko interesa du.

4) Alderdiek kontratatzeko eta behartzeko adinako gaitasuna dutela aintzatesten dute, eta erabilera-eskubidea lagatzeko hitzarmen hau adosten dute, askatasunez eta naturaltasunez klausula hauek

**CONVENIO ENTRE LA SECRETARÍA TÉCNICA DE UDALSAREA 21, IHOBE, S.A. Y EL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA PARA LA CESIÓN, USO Y EXPLOTACIÓN COMPARTIDO DE LA APLICACIÓN INFORMÁTICA E-MUGI**

En Bilbao, a 28 de junio de 2018

**REUNIDOS**

De una parte, D. Jesús Losada Besteiro, en calidad de Director General de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A., N.I.F. A-01024223.

Y de otra parte, D. Julen Mendoza Pérez en calidad de alcalde del Ayuntamiento de Errenteria.

**EXPONEN**

1) Que la Sociedad Pública Ihobe, S.A., en calidad de Secretaría Técnica de Udalsarea 21, Red vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad, y como Observatorio de Sostenibilidad Local de la CAPV, denominada a partir de aquí el cedente, es propietaria y titular exclusiva de los derechos de explotación de la aplicación informática e-mugi.

2) Que el marco regulador de la Red, Acuerdo de renovación del Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco: "Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad", de 27 de abril de 2016, recoge como responsabilidad de las administraciones locales firmantes, facilitar información y compartir experiencias de interés en el marco de Udalsarea 21.

3) Que el Ayuntamiento de Errenteria, denominado a partir de aquí el cesionario, adherido al citado Acuerdo, está interesado en utilizar la aplicación informática para su uso particular.

4) Reconociéndose las partes capacidad suficiente para contratar y obligarse, conciertan el presente convenio de cesión del derecho de uso que libre y espontáneamente sujetan a las

onartuz,

**KLAUSULAK:**

**LEHENENGOA.- LAGAPENAREN ERREGIMENA.**

1.1 Hitzarmen honen bidez, lagatzaileak baimen besterenezina eta ez-esklusiboa ematen dio lagapen-hartzaileari e-mugi aplikazio informatikoa erabiltzeko, Udalsarea 21en esparruan tokiko jasangarritasuna kudeatzeko planaren beharrak asetzeko erabil dezan bere udalerrian.

1.2 Lagapen-hartzaileak e-mugi aplikazio informatikoa erabili ahal izango du udalerriko tokiko jasangarritasuna kudeatzeko planaren eta Udalsarea 21en esparruan dituen jasangarritasun-politiken esparruan soilik, betiere udal langileen edo haiek funtzio hori eskuordetzen dieten beste pertsona batzuen eskutik.

1.3 Lagapen-hartzailea udal bat baldin bada, udal hori Udalsarea 21en barruan, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen kide gisa, egoteari lotuta egongo da baimenaren iraupena.
Lagapen-hartzailea eskualde-erakunde bat bada, erakunde horren mende dauden udal gehienak Udalsarea 21en barruan egoteari lotuta egongo da baimena.

**BIGARRENA.- e-mugi ERABILTZEKO SARBIDEA**

2.1 Lagatzaileak aplikazioaren erabilera erraztuko dio lagapen-hartzaileari erakundeak idatziz izendatzen dituen pertsonei sarbide-baimen indibidualizatua emanda, eta material hauek emango dizkio:

- Erabilera-eskuliburua, zeinak aplikazioa erabiltzeko gako nagusiak baititu.
- Sarbide-motari buruzko informazioa (irakurtzekoa eta/edo editatzekoa).
- e-mugiren Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren helbide elektronikoak.

2.2 Lagapen-hartzaileak bermatu beharko du e-mugi aplikazio informatikoaren funtzionamendurako behar diren espezifikazio teknikoak (softwarea eta hardwarea) betetzen

siguientes

**CLÁUSULAS:**

**PRIMERA.- REGIMEN DE LA CESION.**

1.1 Por el presente convenio el cedente concede al cesionario una licencia intransferible y no exclusiva para el uso de la aplicación informática e-mugi destinándola a la satisfacción de sus necesidades de gestión de su plan de sostenibilidad local en el marco de Udalsarea 21, dentro de su municipio.

1.2 El ámbito de utilización de la aplicación informática e-mugi por parte del cesionario será exclusivamente el de la gestión del plan de sostenibilidad local del municipio y de sus políticas de sostenibilidad en el marco de Udalsarea 21 por parte del personal municipal o por aquellas otras personas en quien deleguen esta función.

1.3 El plazo de duración de esta licencia en el caso de que el cesionario sea un Ayuntamientos estará vinculado a su pertenencia a Udalsarea 21 como miembro de la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.
Cuando el cesionario sea una Entidad Comarcal la licencia se supeditará a la pertenencia a Udalsarea 21 de la mayoría de los Ayuntamientos a los que da servicio.

**SEGUNDA.- ACCESO AL USO DEL e-mugi**

2.1 El cedente facilitara el uso de la aplicación al cesionario mediante la concesión del permiso de acceso individualizado a aquellas personas designadas por escrito por la entidad, y hará entrega de los siguientes materiales:

- Manual de uso, conteniendo las principales claves de utilización del aplicativo.
- Información sobre el tipo de acceso que tiene (de lectura y/o de edición).
- Los correos electrónicos del Servicio de Asistencia Técnica del e-mugi.

2.2 El cesionario tendrá que garantizar que se cumplan las especificaciones técnicas (software y hardware) requeridas para el funcionamiento de la aplicación informática e-mugi.

direla.

**HIRUGARRENA.- Ihobe, S.A. INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIETATE PUBLIKOAREN KONPROMISOAK**

Ihobek, Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikoa eta EAEko Tokiko Jasangarritasunaren Behatokia denez, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Udalsarea 21 osatzen duten toki-erakundeen eskura jartzeko tokiko jasangarritasun-planak planifikatu eta kudeatzeko e-mugi 21 tresna, eta hartarako sarbidea ahalbidetzea, sarearen Idazkaritza Teknikoari eskatu ostean, ezarritako prozedurari jarraituz.
- e-mugi aplikazioa mantentzeko eta etengabe hobetzeko ardura hartzeko, identifikatutako beharrizanak kontuan izanda eta haien bideragarritasun tekniko-ekonomikoa baloratu ostean.
- e-mugi tresnaren erabileraren inguruko kontsulta teknikoei erantzuteko onlineko arreta-zerbitzua emateko eta, eskariaren arabera, trebakuntza-saio presentzialak eta/edo material tutorial osagarria antolatzeko.
- e-mugi udalaz gaindiko informazio-iturri gakotzat jotzen diren erakunde hornitzaileek (Eustat, EVE, URA, Iberdrola, etab.) emandako toki- eta udal-informazioarekin kargatzea urtero. Informazio hori giltzarria da, Udalsarea 21en Tokiko Jasangarritasunaren indarreko Adierazle Sistemari jarraituz, udal eta udalerrietako BEG emisioen inbentarioak egiteko eta tokiko jasangarritasunaren adierazleak kalkulatzeko.
- Datu horiek e-mugirekin konektatutako beste kudeaketa-tresna batzuetara irauli edo migratzeko, teknikoki bideragarria denean; adibidez, tresna hauetara: "tak 21: toki-jasangarritasuna hobetzeko bidea", "Berotegi Efektuko Gasak kalkulatzeko inbentarioak", etab.
- EAEko Tokiko Jasangarritasunaren Behatoki gisa, e-mugi 21 tresnan jasotzen den informazioa ustiatzeko, helburu hauekin:
    - EAEko toki-erakundeen eginkizuna nabarmentzeko eta sektore-politika autonomikoetan, lurraldekoetan eta estatukoetan izan duten ekarpenaren garrantzia azpimarratzeko.
    - Udalsarea 21 sare gisa eta hura osatzen

**TERCERA.- COMPROMISOS DE LA SOCIEDAD PÚBLICA DE GESTIÓN AMBIENTAL, Ihobe, S.A.**

Ihobe, como Secretaría Técnica de Udalsarea 21 y Observatorio de Sostenibilidad Local del País Vasco se compromete a:

- Poner a disposición de las entidades locales integrantes de Udalsarea 21, la herramienta de planificación y gestión de los planes de sostenibilidad local, **e-mugi 21** y facilitar el acceso a la misma, previa solicitud a la Secretaría Técnica de la red, de acuerdo al procedimiento establecido.
- Velar por el mantenimiento y mejora continuada del e-mugi, atendiendo a las necesidades identificadas, y valorada la viabilidad técnico–económica de las mismas.
- Ofrecer un servicio de atención on line a consultas técnicas en relación al uso de la herramienta e-mugi y organizar sesiones formativas presenciales y/o material tutorial de apoyo en respuesta al grado de demanda existente.
- Cargar el e-mugi anualmente con información de carácter local/municipal, procedente de entidades suministradoras consideradas fuente de información clave (como Eustat, EVE, URA, Iberdrola, etc) para el cálculo de indicadores de sostenibilidad local y de los Inventarios de emisiones GEI de Ayuntamientos y Municipios, de acuerdo al Sistema de Indicadores de Sostenibilidad Local vigente de Udalsarea 21
- Realizar el volcado o migración de dichos datos a aquellas otras herramientas de gestión interconectadas con el e-mugi, como son el "tak 21: itinerario de mejora en sostenibilidad local" o los "Inventarios para el cálculo de Gases de Efecto Invernadero, etc, cuando sea técnicamente viable.
- Explotar de forma agregada, como Observatorio de Sostenibilidad Local de la CAPV, la información contenida en el e-mugi 21 para:
    - evidenciar el rol de las entidades locales vascas y poner en valor su contribución a distintas políticas sectoriales autonómicas, territoriales y estatales.
    - posicionar Udalsarea 21 como red y los

duten udalerriak estatu mailan eta nazioartean jasangarritasunaren esparruan posizionatzeko, toki-ekintza eraldatzaile identifikatuen bidez eta ekimen klimatikoen bidez: adibidez, Compact of Mayors eta Covenant of Mayors, zeinei udal-ekintzaren berri ekartzea errazten baitie adierazitako Udalsarea 21en tresnek, besteak beste.

- Udalerrietako jasangarritasun-adierazleen eta politiken aurrerapen-graduak profilka identifikatzea eta hobekuntzak erakartzea.

municipios que la conforman en el panorama de la sostenibilidad local a nivel estatal e internacional, a través de acciones transformadoras locales identificadas, iniciativas climáticas como el Compact of Mayors o el Covenant of Mayors, a las que las herramientas de Udalsarea 21 ya mencionadas facilitan el reporte de la acción municipal, etc.

- Identificar el grado de avance de las políticas e indicadores de sostenibilidad de los municipios por perfiles y traccionar la mejora.

**LAUGARRENA.- ERAKUNDE ERABILTZAILEEN KONPROMISOAK**

e-mugi tresnaren erabiltzaile diren erakundeek baimena ematen diote Ihoberi Udalsarea 21en Idazkaritza Tekniko gisa eta EAEko Toki Iraunkortasunaren Behatoki gisa

- o Baimena ematen diete udalaz gaindiko informazio-iturritzat jotzen diren erakunde hornitzaileei (Eustat, EVE, URA, Iberdrola, etab. ) Tokiko Jasangarritasunaren Adierazleen kalkuluaren inguruko toki- eta udal-informazioa eskatzeko urtero.
- o Tresna horietako datuen tratamendutik eratorritako informazio gehitua zabaltzeko Udalsarea 21en euskarrietan eta komunikazio-elementuetan: argitalpenak, webgunea, ekitaldiak, etab.
- o Tokiko ekintza-planen ebaluaziotik eta tokiko jasangarritasunaren adierazleen kalkulutik eratorritako datuak emateko Udalsarea 21eko kide diren udalaz gaindiko erakundeei; adibidez, foru-aldundiei, URA-Agentziari, EEE-EVEri, etab.
- o Oro har gizarteari zuzendutako toki-eremuko informazioa argitaratzeko, jasangarritasun-heziketaren alde eta helburuen araberako kudeaketa eta emaitzen jakinarazpen publikoa sustatu nahi duten toki-administrazioen gardentasunaren alde.
- o Sareko beste kide batzuei harreman tekniko-politikorako datuak emateko, lankidetza publikoa-publikoa sendotzeko asmoz.
- o Toki-erakundeak aldez aurretik e-mugi tresnaren erakunde erabiltzaileen urteko inkestaren bidez emandako dokumentazioa (agiriak, ordenantzak, sektore-planak, etab.) emateko Udalsarea 21eko beste kide batzuei.

**CUARTA.-COMPROMISOS DE LAS ENTIDADES USUARIAS**

Las entidades usuarias del e-mugi autorizan a Ihobe como Secretaría Técnica de Udalsarea 21 y Observatorio de Sostenibilidad Local de la CAPV

- o A solicitar anualmente información de carácter local/municipal relacionado con el cálculo de Indicadores de Sostenibilidad Local, a entidades suministradoras fuente de información de carácter supramunicipal (como Eustat, EVE, URA, Iberdrola, etc).
- o A difundir la información agregada resultante del tratamiento de los datos de dichas herramientas en distintos soportes y elementos de comunicación de Udalsarea 21 como publicaciones, web, eventos, etc
- o A facilitar a entidades supramunicipales miembros de Udalsarea 21, como Diputaciones Forales, URA-Agentzia, EVE, etc, datos territoriales y/o sectoriales resultantes de la evaluación de los planes de acción local o del cálculo de indicadores de sostenibilidad local.
- o A publicar información de carácter local, dirigida a la sociedad en general en pro de la trasparencia de las administraciones locales que abogan por una gestión por objetivos y la comunicación pública de resultados y de la educación para la sostenibilidad.
- o A facilitar a otros miembros de la red datos de contacto técnico-político al objeto de fortalecer la colaboración pública-pública.
- o A facilitar a otros miembros de Udalsarea 21, documentación de interés (pliegos, ordenanzas, distintos planes sectoriales, etc) facilitados previamente por la entidad local a través de la encuesta anual de entidad

Dokumentazioak Udalsarea 21en Liburutegi Birtualaren edukia zabaltzeko balioko du.

usuaria del e-mugi, y que servirá para ampliar contenido de la Biblioteca Virtual de Udalsarea 21.

**BOSGARRENA.- APLIKAZIOAREN JABETZA.**

5.1 Lagapen-hartzaileak onartu egiten ditu lagatzaileak e-mugi aplikazio informatikoarekiko dituen copyright-eskubideak. Eskubide horiek aplikazio informatikoa, erabiltzearen eskuliburuak eta laguntza-materialak babesten dituzte.

5.2 Lagapen-hartzaileak onartu egiten du Ihobe, S.A.k e-mugi aplikazio informatikoa uzten diola esklusiboki erakundearen erabilera partikularrerako, eta konpromisoa hartzen du haren erabilera —partziala nahiz osoa— inori ez uzteko eta hitzarmen honen arabera harengan dituen eskubideetako bat ere ez eskualdatzeko, eta ez zabaltzeko, argitaratzeko eta beste moduren batera besteren esku ez jartzeko, betiere ez badira aldez aurretik hura erabiltzeko izendatutako pertsonak.

**QUINTA.- PROPIEDAD DE LA APLICACIÓN.**

5.1 El cesionario reconoce los derechos de "copyright" del cedente sobre la aplicación informática e-mugi. Dichos derechos protegen la aplicación informática, los manuales del usuario y materiales de apoyo.

5.2 El cesionario reconoce que la aplicación informática e-mugi le es cedida por Ihobe, S.A exclusivamente para el uso particular de la entidad y se compromete a no ceder su uso parcial o total de ninguna forma y a no transmitir ninguno de los derechos que tenga sobre él en virtud de este convenio, así como a no divulgarlo, publicarlo, ni ponerlo de ninguna otra manera a disposición de otras personas, salvo de las personas designadas previamente para su uso.

**SEIGARRENA.- DATUEN JABETZA**

6.1 Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute 15/1999 Lege Organikoak (1999ko abenduaren 13koa) datu pertsonalen tratamendu automatizaturako ezartzen dituen bermeak gordetzeko eta gutxienez 1720/2007 Dekretuan (2007ko abenduaren 21ekoa), zeinaren bidez 15/1999 Lege Organikoa (1999ko abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) garatzeko Araudia onartzen baita, aurreikusten diren segurtasun-neurriak hartzeko".

6.2 e-mugi aplikazio informatikoan sartzen diren datuak eta informazioa Udalaren edo eskualde-erakundearen jabetzakoak izango dira. Datu horiek edo informazio hori Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikoaren esku jarriko dira, Sarearen helburuak betetzen laguntzeko, bai Udalsarea 21eko kideei buruzko informazioari badagozkio (identifikaziokoak, harremanetakoak edo beste motaren batekoak), bai toki-jasangarritasuneko planen egikaritzearen ingurukoak badira.

Informazio horren segurtasuna bermatzeko eta Udalsarea 21en esparruan soilik erabiliko dela bermatzeko, bi alderdiek konpromisoa hartzen

**SEXTA .- PROPIEDAD DE DATOS**

6.1 Ambas partes se comprometen a guardar las garantías que en el tratamiento automatizado de los datos de carácter personal establece la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, garantizando en todo caso la debida protección de los datos de carácter personal, y a implantar como mínimo las medidas de seguridad previstas en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.".

6.2 Todos los datos o información que sean introducidos en la aplicación informática e-mugi serán propiedad del Ayuntamiento o de la Entidad Comarcal en su caso. Estos datos o información se pondrán a disposición de la Secretaría Técnica de la Udalsarea 21 para contribuir a dar cumplimiento a los fines y objetivos de Red, tanto si se refieren a información sobre los integrantes de Udalsarea 21 (de identificación, contacto o de otro tipo), o si tienen relación con la ejecución de los planes de sostenibilidad local.

Con el objeto de garantizar la seguridad de ésta información y uso exclusivo en el marco de Udalsarea 21, ambas partes se comprometen a

dute konfidentzialtasuna mantentzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak hartzeko.

6.3 Aldez aurretik lagapen-hartzaileari jakinarazi ostean, Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikoak aplikazioan jasotako informazioa laga ahalko die hirugarrenei, EAEko nahiz hartatik kanpoko toki-jasangarritasunaren inguruko helburuak lortzen laguntzeko eta EAEko udalerriek helburu horiek betetzeko egiten duten toki-ekarpena frogatzeko.

**ZAZPIGARRENA.- JABETZA INTELEKTUALAREN LEGERA IGORTZEA.**

Indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratuari lotzen zaizkio alderdiak, hitzarmen honetan arautzen ez diren gai guztietarako.

**ZORTZIGARRENA.- LAGAPENA IRAUNGITZEA.**

Hitzarmen hau iraungiko da Kode Zibilean eta Merkataritza Kodean ezarritako kausa orokorrengatik, hitzarmenetik eratortzen diren betebeharrak ez betetzeagatik eta, bereziki, hitzarmen honetako lehenengo klausulako hirugarren atalean aurreikusten den epea betetzeagatik.

Adostasunaren erakusgarri, hitzarmen hau sinatzen da goiburukoan adierazitako tokian eta datan.

mantener la confidencialidad y la adopción de medidas de seguridad en este sentido.

6.3 Previa notificación al cesionario, la Secretaría Técnica de la Udalsarea 21 podrá ceder a terceros la información contenida en la aplicación con el fin de contribuir a la consecución de objetivos en materia de sostenibilidad local en la CAPV o fuera de ella o demostrar la contribución local de los municipios del País Vasco en el cumplimiento de estos objetivos.

**SEPTIMA.- REMISION A LA LEY DE PROPIEDAD INTELECTUAL.**

Las partes se remiten al Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual vigente, para todas aquellas cuestiones no reguladas en este convenio.

**OCTAVA.- EXTINCION DE LA CESION.**

Este convenio se extinguirá por las causas generales establecidas en el Código Civil y en el Código de Comercio, por incumplimiento de las obligaciones dimanantes del convenio, y especialmente por el cumplimiento del plazo previsto en la cláusula Primera, apartado tercero del presente convenio.

Y prueba de conformidad, se firma el presente convenio en el lugar y fecha señalados en el encabezado.

Errenteriako udalaren izenean / En representación del Ayuntamiento de Errenteria

ERRENTERIAKO ALKATETZA

Izpta./Fdo.: Julen Mendoza Pérez

Ihoberen izenean / En representación de Ihobe

Izpta/Fdo.: Jesús Losada Besteiro